



## **GURE ESKUBIDEEKIN ARDURATSU ETA ZORROTZ**

Zenbait herrialdetan baloratu da ordua iritsitakoan ere adineko pertsonen mugimendu askea eragotzi eta murriztu egiten dela. Neurri diskriminatzaileak ezartzea adinaren irizpidean oinarrituta, giza eskubideen aurkako erasoak suposatzen du. Erabaki hertsia eta bidegabea izango litzateke. Konfiantza izan dezagun gobernatzen gaituzten agintari politiko eta sanitarioek zentzu komunean oinarriturik adin diskriminazioa ahaztu eta baztertu dezatela. Adin arrazoiengatik gomendatu daiteke, inoiz debekatu eta gutxiago zigortu. Erantzukizunaren zentzua gure portaeraren oinarria da. Gure osasunarekin kezkatuta gaude. Baita gure inguruan daudenak eta gure osasuna eta eguneroko beharrak zaintzen dizkigutenak. Adinekoek ariketa fisikoa landu behar dugu. Gure gorputzak gihar tonua eta oreka mantentzeko gai dela aldarrikatzen du. Adinekoek maiz egiten dute erresistentziarako kirol jarduerak, askotan osasun arrazoiengatik gomendagarriak. Adinekoek ariketa fisikoa landu behar dugu. Gure gorputzak gihar tonua eta oreka mantentzeko gai dela aldarrikatzen du. Adinekoek maiz egiten dute erresistentziarako kirol jarduerak, askotan osasun arrazoiengatik gomendatzen direnak.

Azkenean, isolamendua kentzen edo arintzen denean eskatzen dugu adinean oinarritutako murrizketarik ez izatea. Eskubide eta betebeharrak osoak dituzten pertsona gisa tratatuak izatea eskatzen dugu. Komeniko litzateke ahalik eta lasterren segurtasun neurri guztiak mantentzen uztea. Ziur ez da beharrezkoa izango "ile txurien matxinada" sustatzea.

Osasun krisiak ekonomian izan ditzakeen eraginaz eta enpresetan, langileetan, autonomoetan, ETEetan ... eta enpleguan nolako eragina izaten ari denaz oso kezkatuta gaude. Hori larriagotu egingo da datozen hilabeteetan. Erantzukizun eta elkartasun handia beharko da etorkizunari aurre egiteko. Baina ez dugu inoiz onartuko 2008ko iruzur krisiaren antzeko errezeta ekonomikoak, zeinean pairatzaileak gehiengo soziala izan ginen, eta, elite pribilegiatuak beren dirutzak biderkatzen zituzten bitartean. Krisi berri honetatik ateratzeko bidea pertsonen arazoak eta eskubideak erdigunean jarri behar dira. Baliabide ekonomiko eskergak askatu behar dira, enpresak, autonomoak, ETEak ... berriro ekoizten has daitezten, eskubideen murrizketarik gabe eta pertsona guztiei bizitza duina izan dezaten, pentsiodunek ere. Eta horrelako finantzaketak ez du zorra areagotu behar, ezta ere murrizketa berriak onartzea eta eskubideak galtzea.

Jakina, pentsio publiko duinak lortzeko borrokan jarraituko dugu. Gizarte bidezkoago eta solidarioago baten alde lan eginez, non pertsona bakoitzak bere oinarritzko beharrak aseguraturik izan ditzan eta jasangarriago eta orekatuagoa den mundu bat lortuz.

### **BAT ETORRI**

2020ko apirilaren 24a